



# Kirol-modalitate berriak Bilbon, Euskaltelen V. Kirol Egunean

- ***Aurten, nobedade gisara, badmintona, skatea, body combat eta bideojokoak egongo dira, Kirol Egunaren ohiko modalitateez gain: 4ko futbola, minisaskibaloia, zumba, jumpinga, balanz-bikes, frontoia, herri-kirolak, sokatira, eskalada-murrua, giza mahai-futbola, saskibaloia egokitua, beisbola, piraguak eta batelak, ibilketa nordikoa, patinajea eta xakea.***
- ***Bosgarren Kirol Egunak aurreko urteetako espirituari eusten dio: familiek eta hainbat modalitatetan kirola eginez gozatu nahi duen edonork parte hartzea kirol-giro jatorreko zenbait ekitalditan.***
- ***Arratsaldean, “Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako III. futbol-txapelketa inklusiboa” egingo da, Athletic Fundazioak lagunduta.***
- ***Euskaltelek antolatzen du Kirol Eguna, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren eta Bilbao Kirolak erakundearen laguntza du.***

**Bilbon, 2016ko ekainaren 3an.** Bihar, larunbata, ekainak 4, familia-kirolaren eguna da Bilbon eta Bizkaian. Hemen da Kirol Eguna, bosgarren urtez jarraian. Berrikuntzak dakartza, eta hainbat kirol-diziplina, adin guztietako jendeak Bilboko Areatzako kaian egingo diren jardunaldietan parte har dezan. Arratsaldean, “Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako III. futbol-txapelketa inklusiboa” jokatuko da, Athletic Fundazioak lagunduta.

Euskaltelek antolatzen du Kirol Eguna, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren eta Bilbao Kirolak erakundearen laguntza du.

Beste behin ere, Bilboko Areatzako kaia kirol anitzetarako kanta erraldoi bihurtuko da bihar: hainbat partida, erakustaldi, lehiaketa eta kirol-modalitate erakargarri izango dira, kirola eginez ondo pasatu nahi duten guztientzat. Hala, aurreko urteetako parte-hartze handia gairatzeko asmotan dator aurtengo edizioa. Aurrekoetan, 6.000 lagun elkartu ziren Bilboko Areatzako kaian.

Hain zuzen ere, Euskaltelek antolatzen duen Kirol Egunaren espiritua da familiek eta hainbat motatako kirola eginez gozatu nahi duen edonork kirol-giro zintzoan parte hartzea sustatzen duen ekitaldi bat izatea.

Ordutegi hau izango du V. Kirol Egunak: 11:00etatik 14:30era, eta 17:00etatik 20:30era.

## Kirol-modalitateak

Aurten ere 4ko futboleko eta minibasketeko txapelketak jokatuko dituzte Kirol Egunean kimuek eta benjaminek osatutako taldeek (aldez aurretik izena eman behar da webgune honetan: [gozatieuskaltel.com](http://gozatieuskaltel.com)).

Bilboko Areto Futboleko emakumezkoen taldearen Stilo Kirol Klubaren aurka jokatzeke aukera izango dute 4ko futboleko txapelketa irabazten dutenek. Txapelketako saria: hurrengo denboraldiko partida batean, San Mamesen, Athleticceko jokalarien eskutik aterako dira irabazleak futbol-zelaira.

Minibasketeko txapelketa irabazten duten taldeek, berriz, saskibaloiko emakumezkoen lehen mailako Gernika KESB taldearen aurka partida bat jokatuko dute. Saria: lagun bat gehiago sar dezakete irabazleak Bilbao Arenan Dominion Bilbao Basketen partida bateko atsedendian 5x5 partida bat jokatzeke. Aukera aparta gogoko jokolariak bertatik bertara ikusteko.

4ko futboleko eta minibasketeko txapelketez gain (modalitate horietako sariak 14:00etan banatuko dira), hainbat diziplinako jarduerak antolatu dira, bai goizerako, bai arratsalderako. Nobedade gisara, aurten body combateko saioak, bideojokoekin aritzeko eremu bat eta badmintoneko eta skateko erakustaldiak ere egongo dira.

## Jarduerak eta ordutegiak:

- **Zumba**, goizean, 11:15etik aurrera, ordu oro.
- **Body combat (nobedadea!)**. Arratsaldean, 45na minutuko bi saioa, 17:15ean eta 18:15ean.
- **Saskibaloiko egokitua**. Slaloma gurpil-aulkiarekin (nobedadea!). Egun osoan.
- **Eskalada-murrua**. Egun osoan.
- **Jumping**. Egun osoan.
- **Surf-ohol mekanikoa**. Egun osoan.
- **Sokatira**. Egun osoan. Goizean, Gaztedi eta Goiherri taldeak arituko dira, haien aurka nor baino nor jardun nahi dutenekin.
- **Frontoia**. Egun osoan.
- **Herri-kirolak**. Egun osoan. Erakustaldi berezia 19:00etan.
- **Balanz Bikes**. Egun osoan.
- **Beisbola**. Egun osoan.
- **XBOX FIFA 16** jokoak (8 pantaila).
- **Xakea**. Egun osoan.
- **Ibilketa nordikoa**. Goizean, irteerak 12:00etan eta 13:30ean; arratsaldean, 18:00etan eta 19:30ean.
- **Patinaje-ibilbidea**. Hamasei km-ko ibilbidea Bilbon zehar. Goizean, 11:30ean abiatzen da; arratsaldean, berriz, 17:30ean.
- **Badmintona (nobedadea!)**. Egun osoan. Erakustaldiak egingo ditu Lara Villacortak (2.a Espainiako estatuko 13 urtez azpikoen rankigean), 12:00etan eta 18:00etan. Kirol hori ezagutzeko hitzordu proposa, aurten Bilbon izango baita Badmintoneko Munduko Junior Txapelketa.
- **Skate-Jam Session (nobedadea!)**. 11:00etatik 14:30era, entrenamenduak eta skate libre; 17:00etatik 20:30era, Jam Session-a.

- **Piraguak eta batelak.** Goizean. Pío Barojako pantalanetik irtengo dira.
- **Desgaitasun Intelektuala duten Pertsonak Gizarteratzeko III. Txapelketa.** Arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara; ondoren, sari-banaketa.
- **Showcase (minikontzertua).** “El hombre del tiempo”, 19:15ean, eszenategi nagusian
- Haurren saskibaloiko eta futboleko **sarien banaketa** 14:00etan izango da, eszenategi nagusian.
- **Desgaituak Gizarteratzeko III. Txapelketako** sariaren banaketa, berriz, 20:00etan izango da, eszenategi nagusian.
- 20:30 **Jardunaldiaren amaiera.**

### Skate-erakusketa eta Jam Session-a

Zortzi eta 16 urte bitartekoentzat da egokia skatea; aurten, eremu propioa izango du Euskaltelen Kirol Egunean. Zenbait sari banatuko dira: birarik onenarena, trukurik onenarena, saio bikoitz onenarena eta skater originalenarena. Goizean, 11:00etatik 14:30era, skate librea eta entrenamenduak; arratsaldez, berriz, 17:00etatik 20:30era, Jam Session-a. Nahitaez eraman behar da kaskoa buruan.

### Txapelketa inklusiboa

Arratsaldean, “Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako III. futbol-txapelketa inklusiboa” egingo da, Athletic Fundazioak lagunduta. Aurpegi ezagunak ere izango dira partida horretan. Talde mistoak osatuko dituzte denek, txapelketan parte hartzeko. Euskaltelek ere bere ekarpena egin nahi du, jendea sentsibilizatzeko desgaitasunaren inguruan eta erakusteko kirola elementu integratzailea izan daitekeela, bai eta balioak transmititzeko bide egokia ere (esaterako, erronkak gainditzeko grina).

---

**Euskaltel – Komunikazioa**

**94-4011229**

[komunikazioa@euskaltel.com](mailto:komunikazioa@euskaltel.com)